



PRENTSA-OHARRA

Hiriarte Kultura Garaikideko Zentroak irudi berria du: Ziadadela kultur gune gisa berrasmatzea bilatzen duen proiektu horren inzialekin egindako jolas bisuala

Hezkuntza eta Kulturako zinegotzi ordezkariak gaur aurkeztutako proposamenak irudi korporatiboa, seinaletika, hedapenerako materiala eta webgunea barne hartzen ditu

Ziadadelan kokatutako Hiriarte Kultura Garaikideko Zentroaren irudia H eta A inzialekin egindako jolas bisual bat izango da, irudikatzen duen gunearen modernitatearen eta gaurkotasunaren isla. Kolore beltzean, Ziadadela –Zentroaren egoitza den azpiegitura– bezalako toki adierazgarri baten irudia dela aintzat hartuta diseinatutako baliabide grafiko bat da. Irudi berriaren xehetasun guztiak gaur goizean aurkeztu dituzte prentsaurrekoan Hezkuntza eta Kulturako zinegotzi ordezkari Maider Belokik, Alor horretako zuzendari Maitena Muruzabalek eta Artworks Comunicación enpresako Edmundo Irujok.

Hiriarte proiektuak Ziadadelan kultura garaikideko zentro bat sortzeko asmoa du, elkar topatzeko, goatzeko eta ezagutzarako gune irekia, sormen-espazio transdiziplinarren ekimen eta esperientzietan inspiratuta. Proiektu hau Iruñeko Udalaren kultur politika berriaren ardatz nagusietako bat da, zeinaren bitartez kultur eredu gertuko, ireki, sormenezko eta kalitatezko batekin blaitu nahi baitu hiria.

Irudia egiteko Udalak lizitazioa deitu zuen. Haren aurrekontua, gehienez, 13.000 euro gehi BEZa zen. 8 proposamen jaso ziren, eta horietako bakoitzak barne hartzen zituen osagai hauek: irudi korporatiboa eta irudi hori euskarri ezberdinetan nola aplikatu; proiektua hedatzeko eta hari buruzko informazioa emateko seinaletika, Ziadadela barruan zein inguruetan; jarduerak hedatzeko eta sustatzeko materiala; eta webgunea. Puntu gehien lortu zuen enpresa Artworks Comunicación izan zen.

Tipografia lineala, arteari lotutako ikonografia eta berariazko baliabide grafikoak Ziadadelarako

Diseinuaren abiapuntua, egileen arabera, irudi moderno eta gaurkotu bat eraikitzea izan da, aintzat hartuta Kultura Garaikideko Zentro bat dela. Oinarrizko premisak izan dira tipografia lineala, xalotasuna eta sintetizazioa, kolore lauak, artearen munduari lotutako ikonografia, eta





zentroaren azpiegitura bera gogora ekartzen duten baliabide grafikoak. Emaizta logotipo beltz bat da, Hiriartearen izenean uztartutako bi hitzen inizialekin jolasten duena konposizioan: *hiria* hitzaren H-a eta *artearen* A. Hori horrela, begiratzeko moduaren arabera A bat zein H bat ikus daitezke, dualitatea irudikatzen du, eta hainbat interpretaziori bide ematen dion jolas bisual bihurtzen da.

Din Condensed Bold tipografia hautatu da. Bi bertsio marraztu dira, bata laua eta bestea 3Dn. Irudiaren atzealdea, lauki beltz bat da. Horren bidez irudikatu nahi da Kultura Garaikideko Zentroa barruti batean dagoela, eta une horretan dauden erakusketen zatiak agertzeko aukera ematen du, baita kolore zein testura ezberdinekin jolastekoa ere.

Seinaletikak, bestalde, Hiriartearen irudi korporatiboarekiko koherentzia mantenduko du. Irisgarritasuna aintzat hartuta egin da, Zentroa bisitatzen dutenek berehala interpretatzeko moduko kodeak baliatuta, eta irakurgarritasuna, ikusgarritasuna eta unibertsaltasuna kontuan hartuta. Informazioaren euskarri gisa beltzez tintatutako korten altzairuzko xaflak erabiliko dira. Zulatuta egongo dira metakrilatoan txertatutako informazioa jasotzeko.

Proposamen irabazleak kartelen informazioa lau zutabetan banatzen du, diseinuari orden-itxura handiagoa emate aldera, eta hartara, irakurgarritasuna errazte aldera. Tipografia mantentzen du, bai eta logotipoa inguratzen duen kuxarekin egindako jokoak ere. Irudiek protagonismo nabaria izan dezaten aintzat hartuta diseinatuko da webgunea. Hiru hizkuntzatan egongo da: gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez. pamplonaescultura.es eta iruñakulturada.es webguneetara sartzeko lasterbideak izango ditu, baita Hiriartearen sare sozialetara sartzeko ere. Bilatzaile bat izango du, besteak beste, jarduera, erakusketa, data edo hitz-gakoen araberrako kontsultak egin ahal izateko. Bestalde, hasiera-orrin informaziorik garrantzitsuena nabarmenduko da, ordutegi, sarrera, berritasun eta eduki interesgarrienekin. Diseinua gailu-mota orotara egokitzea izango da, “responsive” tankerakoa.

Seinale orokorrak kanpoan, barruan eta eraikin bakoitzean

Une honetan seinaleetika orokorra ekoizten ari da, apirila hasierarako prest egongo da, eta orduan kokatuko da barrutian. Seinale orokor bat egongo da Zitudadelako kanpoaldean, beste bat mapa batekin gunearen sarreran, eraikin bakoitza eta bertan dauden erakusketak identifikatuko dituzten adierazleak, eta errotuluak, jendea eraikinetako bakoitzera bideratzen laguntzeko. Guzti horren gastuak 9.000 euro joko du. Paraleloki, webgunea lantzen ari dira, eta liburuxkak, txartel handiak eta hedapenerako beste elementu batzuk egiten eta diseinatzen.

Hiriartearen, Iruñeko Kultura Garaikideko Zentroa – Zitudadela delakoak tokiko zein nazioarteko artisten erakusketak izango ditu ikusgai; aldi baterako erakusketa tematikoak Arte Garaikidearen Bildumako lanekin; eta artista eta herritarren arteko topaketak egingo dira, hainbat jardueraren bidez –bisita gidatuak, hitzaldiak, ikus-entzunezkoen emanaldiak, mahai-inguruak, etab.–, betiere xede hartuta adierazpen artistikoen inguruko hausnarketari eta sorkuntzari bide ematea. Halaber, arte eszenikoen eta musikaren hedapenaren aldeko apustua



egingo du, kontzertu eta antzerki-ikuskizunen bidez; baita kultur dibulgazioaren aldekoa ere, liburutegi-mediateka baten bidez, non herritarren eskura jarriko baitira artearekin zein kulturarekin lotutako irakurgaiak, kontsultatu eta gozatu ditzaten; eta beste gune baten bidez, non artistek haien esperientziak eta ezagutzak partekatu ahal izango dituzten.

Iruñean, 2018ko martxoaren 12an 2018